



# JOKO ETA IKUSKIZUN ZUZENDARITZA

## 2013KO MEMORIA

*Ikuskizunen eta Jolas Jardueren  
Arloa*

## AURKIBIDEA

	Orr.
1. Joko eta Ikuskizun Zuzendaritzaren ikuskizun-arloko eskumenak	4
2. Joko eta Ikuskizun Zuzendaritzaren partaidetza duten organoak	4
3. Organigrama funtzionala	4
• Zerbitzuen banaketa funtzionala.	5
- Zerbitzu Zentralak (Lakua)	
- Lurralde Zerbitzuak	
- Ikuskaritza Zerbitzua	
• Baliabide eta Zerbitzu Teknikoak	6
4. 2013-12-31ko datu estatistikoak	7
• Ikuskizunen eta jolas-jardueren lokalak, Eusko Jaurlaritzak kontrolatu behar dituenak (edukiera >700 pertsona, zezen-plazak eta joko-lokalak)	7
• Joko eta Ikuskizun Zuzendaritzak baimendutako ikuskizunak eta jarduerak	8
• Lurralde historikoen araberrako urteko jarduera	9
• Ikuskizun-arloan izapidetutako zehapen-espedienteak eta errekurtsioak	11
• Joko eta Ikuskizun Zuzendaritzaren ikuskaritza-lana	17
• Zezen-arloko jarduera	21
- 2012-2013 aldiko zezen-ikuskizun nagusien konparazio-taula	
5. Ikuskizun-arloko administrazio-tasen ondoriozko diru-sarrerak.	22
6. 2013ko agenda	25
7. Arau-egitura	28

# I

## JOKO ETA IKUSKIZUN ZUZENDARITZAREN ESKUMENAK

Apirilaren 9ko 194/2013 Dekretuak Segurtasun Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen du.

Dekretu horren 15. artikuluekin bat etorritik, ikuskizun-arloan Joko eta Ikuskizun Zuzendaritzari dagokio ahalmen eta eginkizun hauek baliatzea:

- *Ausazko jokoei eta ikuskizun publiko eta jolas-jardueri buruzko politika publikoak lantzea.*
- *Ikuskizun publikoen eta jolas-jardueren arloan Segurtasun Sailari esleitutako ahalmen guztiak baliatzea, beste organo batzuei dagozkienak izan ezik.*
- *Datuak mantentzea eta ustiatzea eta, joko eta ikuskizunei buruzko urteko memoria prestatze aldera, estatistikak eta azterketak egitea.*
- *Joko eta ikuskizun publiko eta jolas-jardueretan zehatzeko ahalmena kontrolatu, ikuskatu eta erabiltzea, eta Euskal Autonomia Erkidegoan Jokoa arautzeko azaroaren 8ko 4/1991 Legearen 32.1 artikuluan eta Jendaurreko Ikuskizunak eta Jolas Jarduerak arautzeko azaroaren 10eko 4/1995 Legearen 38.3.b) artikuluan jasotako zehapenak eta indarrean dauden arauak izenda diezazkiotenak jarriko ditu. Halaber, hauxe dagokio: kirol-ikuskizunetan egon daitezkeen indarkeria, arrazakeria, xenofobia eta intolerantziaren aurkako uztailaren 11ko 19/2007 Legean aurreikusitako zehapen-erregimenari buruzko espedienteak izapidetzea; hori dela eta, arau-hauste arin eta larriei dagozkien zehapenak jarriko ditu. Zehapen-espediente horiek Joko eta Ikuskizun Zuzendaritzako Lege Aholkularitza Arloak izapidetuko ditu.*

Joko eta Ikuskizun Zuzendaritzaren menpeko lurralde-bulegoek, betiere zuzendaritzaren titularrak emandako jarraibideen arabera, ahalmen eta eskumen hauek gauzatu dituzte:

- *Baimenak ematea, jendaurreko ikuskizunak eta jolas-jarduerak egiteko. Nolanahi ere, salbuespen izango dira 10.000 pertsonatik gorako edukiera dutenak eta zezen-ikuskizun nagusiak.*
- *Lokal publikoen dokumentazioa eta datu-baseak kudeatzea eta eguneratzea, baldin eta horien kontrola Joko eta Ikuskizun Zuzendaritzari badagokio.*
- *Dagokien lurralde-eremuko ikuskaritzarekiko koordinazioa.*

Ikuskapen- eta kontrol-funtzioak betetzea Joko eta Ikuskizun Unitateari dagokio. Unitate hori funtzionalki Joko eta Ikuskizun Zuzendaritzaren menpe dago, Jendaurreko Ikuskizunak eta Jolas Jarduerak arautzeko azaroaren 10eko 4/1995 Legean xedatutakoarekin bat etorritik.


## II

# JOKO ETA IKUSKIZUN ZUZENDARITZAREN PARTAIDETZA DUTEN ORGANOAK

- Jendaurreko Ikuskizunen eta Jolas Jardueren Euskal Kontseilua.
- Zezen Gaietarako Euskal Batzorde Aholku-emalea.
- Zezen Gaietarako Aholku Batzorde Nazionala (Estatua eta autonomia-erkidegoak).

## III

# JOKO ETA IKUSKIZUN ZUZENDARITZAREN ORGANIGRAMA FUNTZIONALA



## ZERBITZUEN BANAKETA FUNTZIONALA

### ZERBITZU ZENTRALAK (LAKUA)

**HELBURUA:** ikuskizunetako jarduerak antolatzea eta koordinatzea.

#### **FUNTZIOAK:**

- Zerbitzuen plangintza, koordinazioa eta kontrol orokorra egitea.
- Zuzendaritzako aplikazio informatikoen eta datu-baseen kontrola eta jarraipena egitea.
- Baimenen kontrola eta jarraipena egitea.
- Dokumentuen eta prozeduren estandarizazioa.
- Ikuskapenaren plangintza eta koordinazio orokorra.
- Aholkularitza juridikoa.
- Arau-garapena.
- Jendaurreko Ikuskizunen Kontseiluaren eta Zezen Gaietarako Euskal Batzorde Aholku-emailearen segimendua.
- Memoriak, estatistikak eta txosten orokorrak.
- Zehapen-espeditenteak izapidetzea.

### LURRALDE ZERBITZUAK.

**HELBURUA:** izapidetzea eta herritarrentzako arreta zuzena.

Joko- eta ikuskizun-arloko lurralde-zerbitzuek, betiere zuzendaritzaren titularrak emandako jarraibideen arabera, beren lurralde-eremuan ahalmen eta eskumen hauek baliatuko dituzte:

- a) Baimenak ematea, jendaurreko ikuskizunak eta jolas-jarduerak egiteko. Nolanahi ere, salbuespen izango dira zezen-ikuskizun nagusiei eta 10.000 pertsonatik gorako edukiera dutenei dagozkienak; baita, beren ezaugarri bereziak direla eta, zuzendaritzaren titularrak bereganatuko dituenak.
- b) Dagokien lurralde-eremuan ikuskaritzarekiko koordinazioa.

#### **BESTE FUNTZIO BATZUK:**

- Geroagoko izapidetzeari begira, dokumentazioa jasotzea.
- Herritarrei arreta eta aholku ematea.
- Datu-baseak mantentzea eta gainbegiratzea.
- Araudia aplikatzea.
- Lurralde Zerbitzu bakoitzeko memoriak, estatistikak eta txostenak.

## **IKUSKARITZA ZERBITZUA (Ertzaintzako Joko eta Ikuskizun Unitatea)**

**HELBURUA:** joko eta ikuskizunetako jarduerak zaintzea, ikuskatzea eta kontrolatzea.

### **FUNTZIOAK:**

Joko eta Ikuskizun Zuzendaritzak emandako jarraibideak eta indarreko araudia kontuan hartuta:

- Joko- eta ikuskizun-arloan indarrean dagoen araudian xedatutakoa zaintzea, ikuskatzea eta betearaztea.
- Ikuskizun publiko eta jolas-jardueretarako lokaletako ikuskizunak eta segurtasun-neurriak kontrolatzea eta ikuskatzea.
- Materialak, lokalak edo ikuskizunak zigilatzea, konfiskatzea, ixtea edo bertan behera uztea.
- Beren funtzioak betetzetik sortutako aktak egitea eta Joko eta Ikuskizun Zuzendaritzako organo eskudunari helaraztea.

## **BALIABIDE ETA ZERBITZU TEKNIKOAK**

Joko eta Ikuskizun Zuzendaritzak berriazko baliabide teknologikoak ditu ikuskizunen arloa bezalako esparru konplexuen eta bizitasun handikoak direnen kudeaketari, ikuskapenari eta kontrolari aurre egin ahal izateko. Horien artean hauek ditugu:




- Baimenak prozesatzea eta kontrolatzea kudeaketarako eta irudirako sistema informatiko integratuaren bidez, horrek balio baitu zuzendaritzako gaien ohiko izapidetzerako oinarrizko euskarri gisa.
- Ikuskapenerako aplikazio informatikoa (JOIKU)
- Zehapeneterako aplikazio informatikoa (JOIKU)
- Ikuskapena eta kontrola egiteko hainbat material.


# IV

## 2013-12-31KO DATU ESTADISTIKOAK

**IKUSKIZUNEN ETA JOLAS JARDUEREN LOKALAK, EUSKO JAURLARITZAK KONTROLATU BEHAR DITUENAK (EDUKIERA >700 PERTSONA, ZEZEN-PLAZAK ETA JOKO-LOKALAK)**


	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa	Guztira
<b>Dantzalekuak, diskotekak</b>		5	3	8
<b>Zinemak, antzokiak</b>	2	16	9	25
<b>Futbol-zelaiak</b>	4	35	11	46
<b>Pilotalekuak</b>	8	10	11	21
<b>Kirol-barrutiak</b>	3		5	5
<b>Kiroldegia</b>	12	37	28	65
<b>Beste kirol-instalazio batzuk</b>	----	2	2	4
<b>Museoak</b>	2	5	1	6
<b>Erakusketa-aretoak</b>	2	4	1	5
<b>Bestelako lokalak</b>	1	3	3	6
<b>GUZTIRA &gt; 700</b>	37			0
<b>Joko-lokalak</b>	31	111	64	175
<b>Zezen-plaza iraunkorrak</b>	1	4	4	8
<b>LOKALAK GUZTIRA</b>	69	115	68	183





**JOKO ETA IKUSKIZUN ZUZENDARITZAK BAIMENDUTAKO IKUSKIZUNAK ETA JARDUERAK**

	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa	2012	2013
Zezen-ikuskitzen nagusiak	7	15	7	40	29
Usadiozko zezen-ikuskitzenak	47	9	102	174	158
Bestelako zezen-ikuskitzenak (Errekortadoreak)		2	2	6	4
Plaza berriro irekitzea	1	4	1	6	6
Birsalmenta	0	1	0	2	1
Piroteknia-artifizioak	7	25	30	73	62
Kontzertuak, jaialdiak	5	24	24	89	53
Bestelako jolas-jarduerak	41	20	23	183	84
Ordutegi-luzapenak *	2	8	9	19	19
<b>GUZTIRA</b>	<b>103</b>	<b>108</b>	<b>198</b>	<b>592</b>	<b>416</b>





## LURRALDE HISTORIKOEN ARABERAKO URTEKO JARDUERA

### Araba

Lokalei dagokienez, 2012. urtearekiko aldaketa bakarrak ditugu, alde batetik, Guridi Zinemak desagertu zirela eta, bestetik, “Los Astrónomos” futbol-zelaiaren baja, haren edukiera 700 pertsona baino gutxiagorentzat izatera pasatu baitzen. 2013an zehar ez da joko-areto berriak irekitzeko baimenik eman eta, horrez gain, bazeudenen artean ez da bajarik egon.

Ikuskizun eta jolas-jarduerari dagokienez, zezen-ikuskizunen kopurua mantendu egin da, baina jaitsiera txiki bat izan du. Ikuskizun nagusiak jaitsi diren arren, ematen du kasuren batean (Laudio) horien ordezkari errekoradore-ikuskizunak egin direla, antza denez, kostu txikiagoa dutelako eta ikusgarritasun handikoak direlako.

Ikuskizun piroteknikoen kopurua hazi egin da, eta ikuskizun horiek orain arte egiten ez zituen beste udal bat gehitu behar da (Oion). Baimenik behar ez dutenez, “zezensuzkoen” ikuskizunak estatistika honetan zenbatzen ez diren arren, kontuan hartu behar da aurten 563/2010 Errege Dekretuaren 18. Jarraibide Tekniko Osagarria aplikatze aldera, abian jarri direla “aditutzat ezagututako taldeen arduradunei” zuzendutako prestakuntza-ekintzak. Arduradun horiek zezensuzkoa erabiltzeko akreditatutako pertsonak dira.

Baimendutako kontzertuen eta jaialdien kopurua jaitsi egin da. Horren arrazoia izan daiteke jazz-jaialdiak gutxiago irauten duela eta mota horretako ikuskizunetako batzuk Iradier Arenan egin direla, hori gure baimenik behar ez duen erabilera anitzeko lokala baita. Beste alde batetik, krisi ekonomikoa ere eragina izan du kontzertuetan eta, tamaina handikoak izan beharrean, edukiera txikiagoko lokaletan (700 baino gutxiago) egin dira.

“Bestelako jolas-jarduerak” izeneko atalean baimen-hazkuntza nabarmena izan da. Datu hori azal dezaketen arrazoiak hauek dira:

- Boxeoko eta Kick Boxingeko gau-ekitaldien hazkuntza.
- Urte berriko kotilioiak baimentzea.
- Buesa Arenan hainbat ikuskizun hasi dira egiten, batez ere haurrentzat, bertan egin ohi den kirol-jardueraz aparte.

### Gipuzkoa

Gipuzkoan 4 zezen-plaza iraunkor daude: Azpeitia, Donostia, Eibar eta Tolosa. 2012ko memorian 3 aipatu ziren. Izan ere, Eibarko zezen-plaza “bestelako lokalak” atalean sartu zen zezen-plaza gisa berririkiera egin ez zutelako.

2013ko memorian berriro zezen-plaza gisa hartzen da, Gipuzkoan berririkiera egin duen eta zezen-ikuskizun nagusiak burutu dituen bakarra Azpeitikoa izan baita. Donostiako zezen-plazan (Ilunbe) Gipuzkoa Basketen partidak eta kontzertu batzuk egin dira, Eibarkoan usadiozko zezen-ikuskizunak eta Tolosakoan usadiozko zezen-ikuskizunak eta beste jarduerak batzuk, hala nola aizkora-apustuak, jaialdiak, etab.

Zezen-ikuskizun nagusien kopuruak ia ez du aldaketarik izan. Zezen-ikuskizun nagusiak erdira jaitsi dira, Deban ikuskizun bat gutxiago egin baita eta Donostiako Aste Nagusian ez baita zezen-ikuskizun nagusirik izan.

Ikuskizun piroteknikoen kopuruan ere ez da aldaketarik egon. Ikuskizunek aldaketa handia izan dute beren osaerari dagokionez. Izan ere, piroteknia-artifizioen kalibreak nabarmen txikiagotu dira indarrean dagoen araudi berrian (Eusko Jaurlaritzaren uztailaren 30eko 400/2013 Dekretua, maiatzaren 7ko 563/2010 Errege Dekretuaren 8. jarraibide teknikoari loturik) eskatutako segurtasun-distantzia handiagoak errespetatu ahal izateko.

Jaitsiera nabaria izan da kontzertuen, jaialdien eta jolas-jardueren kopuruan. Azpimarratzekoa da Donostiako Antonio Elorza belodromoan utzi diotela kontzertuak egiteari, beharbada bi arrazoirengatik: batetik, krisi ekonomikoak horrelako ekitaldien jaitsiera ekarri du eta; bestetik, segurtasun-neurrien aldetik gehiago eskatzen da, eta horrek zaildu du instalazio horretan ekitaldi garrantzitsuak egitea. Beste alde batetik, Zarauzko Udalak, lehen hainbat ekitaldi egiten baitzituen, erabilera anitzeko lizentzia eman dio Aritzatalde kiroldegia. Astigarragako Udalak, lehen ere Gabonetan ekitaldi batzuk egiten baitzituen, alkatearen dekretuz 700 pertsonatik beherako edukiera jarri du kiroldegian.

## Bizkaia

Esparru itxian egindako ikuskizun publikoen eta jolas-jardueren kopuruan hazkuntza handia atzeman da: 44 2013an eta 35 2012an. Hori hala izan da ikuskizunetan segurtasuna kontrolatzeko beharrari buruzko kontzientziazioa zabaldu delako; hain zuzen, hildakoak eragin dituzten istripuak berriki gertatu direla zabaldu denetik. Beraz, administrazio-baimenik gabeko jarduera gutxiago egiten da. Ikuskizun piroteknikoei dagokienez, 50 kilo lehergai baino gehiagoko 20 ikuskizun baimendu dira eta; bestetik, 10 kilo lehergai baino gehiagokoak eta, halaber, 50 kg-tik beherakoak diren 5 ikuskizun. Laz su artifizialdun 24 ikuskizun baimendu ziren, guztiak 50 kilo lehergai baino gehiagokoak. Gogoratu behar da uztailean erregelamendu pirotekniko berria indarrean sartu zela eta haren nobedade nagusia da 10 kilo lehergai baino gehiagoko ikuskizunek baimena behar dutela (lehen baimena behar zutenak 50 kilo baino gehiagokoak ziren). Esan liteke finantza-krisi orokorrak udalak, ikuskizun-mota horren antolatzaile nagusiak baitira, bultzatu dituela ikuskizunak mantentzera; baina haien hedadura -eta, hortaz, kostua- murriztuta.

Abere-heriotzarik gabeko zezen-ikuskizunei dagokienez, Bizkaian 2013an usadiozko 9 zezen-ikuskizun egin dira (bigantxak askatzea eta sokamuturra) eta 2 errekortadore-ikuskizun. Kopuru hauek iazkoak bezalakoak dira, 2012an bederatziz eta bat, hurrenez hurren, izan baitziren.

Guztira, ikuskizun publiko eta jolas-jardueretarako 86 baimen eman ziren eta 2012an, ordea, 69 ikuskizun baimendu ziren.

Eusko Jaurlaritzaren eskumeneko lokal publikoak. 700 pertsonatik gorako edukiera duten lokalak, Eusko Jaurlaritzako Segurtasun Saileko Joko eta Ikuskizun Zuzendaritzak ikuskatzen dituenak, 122 dira. 2013an 3 lokal itxi dira: Bilboko San Mames futbol-zelaia, Barakaldoko Rock Star Live diskoteka eta Getxoko Quality diskoteka. 5 lokal berri daude: Bilboko San Mames futbol-zelaia eta Portugaleteko Pando kiroldegia. Beste hirurak berez ez dira berriak, baina 2013an Eusko Jaurlaritzaren eskumenaren barruan sartu dira: Amorebieta-Etxanoko Zelaieta futbol-zelaia, Bilboko Elkarte Filarmonikoa eta Trapagarango El Barranco kiroldegia. Lokal guztien artean 12 erabilera anitzekoak dira.


## IKUSKIZUN ARLOAN IZAPIDETUTAKO ZEHAPEN ESPEDIENTEAK ETA ERREKURTSOAK

Ikuskizun publikoen eta jolas-jardueren arloan guztira 115 zehapen-espediente izapidetu dira.


Arlo honetan izapidetutako espedienteen kopurua % 61,73 hazi da ekitaldi honetan; hain zuzen, kirolean izandako indarkeriagatik irekitako espediente-kopuruaren igoera nabariagatik.

Espedienteak hurrengo tauletan daude banakatuta egintza-mota, arau-haustearen larritasuna eta egintzak zein lurralde historikotan gauzatu ziren kontuan izanda.


IKUSKIZUN ARLOAN IZANDAKO ZEHAPEN ESPEDIENTE GUZTIAK	2012	2013
	71	115
2012AN HASITAKO ESPEDIENTEAK	56	101
2012an ebatzitakoak	33	75
2012an ebatzi gabe daudenak	23	26
2011AN HASI ETA 2012AN EBATZITAKO ESPEDIENTEAK	15	14




	2012	2013
<b>ARAU-HAUSTE DIREN EGINTZEN ONDORIOZ IZANDAKO ESPEDIENTE GUZTIAK</b>	71	115
OSTALARITZAKO LOKALA IXTEKO ZEHAPENA EZ BETETZEA	3	3
IRUZURREZKO PUBLIZITATEA	0	1
SEGURTASUN NEURRIAK	6	10
Irregularitasunak ebakuazio-bideetan	3	5
Edukiera gainditzea/korridoreetan jendea egotea	0	1
Segurtasun-arloko beste akats batzuk	2	3
Ziurtagiririk ez aurkeztea	1	1
BAIMENDU GABEKO BIRSALMENTA EDO SARRERAK SALTZEKO BALDINTZAK EZ BETETZEA	7	7
IKUSKIZUNEKO ELEMENTUAK EZ BETETZEA		2
AGINTARITZAKO AGENTEEI BEHIN ETA BERRIRO SARRERA UKATZEA		2
ZEZEN-IKUSKIZUN NAGUSIAK	9	1
Plazara berandu joatea	3	
Peoien gurpila	2	
Ezpata lehenago sartu gabe deskabellatzea	1	
Zezena ihesbiderik gabe uztea	1	
Ikusleei errespetua galtzea	1	
Onartutako neurritik gorako burtziak erabiltzea	0	
Zezenak deskargatzeko epea ez betetzea	1	
USADIOZKO ZEZEN-IKUSKIZUNAK		1
KIROLEKO INDARKERIA	46	87
Antolatzailea	4	7
Kirol-barrutian izandako jokabidea	26	64
Inguruetan izandako jokabidea	16	16



	2011	2012
<b>ARAU-HAUSTEAREN ARABERAKO ESPEDIENTE GUZTIAK</b>	<b>77</b>	<b>115</b>
Oso larriak	2	3
Larriak	18	34
Arinak	30	41
Largetsitakoak	13	11
Ebatzi gabekoak	14	26



	2012	2013
<b>ARAU-HAUSTEA EGIN ZEN LURRALDEAREN ARABERAKO ESPEDIENTE GUZTIAK</b>	<b>77</b>	<b>115</b>
Araba	33	14
Bizkaia	25	42
Gipuzkoa	19	59




### **ERREKERIMENDUAK ETA OHARTARAZPENAK**


Zehapen-espedienteak ez irekitzeko asmoz, aldez aurretik zuzentzeko ohartarazpenak eta errekerimenduak egiten dira, askotan balio baitute eskatutakoa zuzentzeko edo betetzeko eta horrela zehapen-espedienterik ez da ireki behar.

	2012	2013
Errekerimenduak	4	2
Ohartarazpenak	26	1

IKUSKIZUN ARLOKO ERREKLAMAZIOAK	2012	2013
Sarrera ukatzeko eskubidea	2	1
Iruzurra ikuskizuna osatzen duten elementuetan	1	5
Segurtasun-arazoak		1
Irregularitasunak sarrerren salmentan	20	2
Arazoak eskuratutako sarrerekin	26	17
Begirunerik gabeko tratua		1
<b>GUZTIRA</b>	<b>69</b>	<b>27</b>



ZEHAPENEI BURUZKO DATU OROKORRAK	2012	2013
Zezen-ikuskizun nagusiak	9	2
Ebazpenaren ez-betetzeak	3	3
Lokaletako segurtasuna	6	10
Kiroleko indarkeria	46	87
Sarrerren birsalmenta	8	6
Ikuskizun-arloko erreklamazioak	168	27
<b>GUZTIRA</b>	<b>240</b>	<b>135</b>





## JOKO ETA IKUSKIZUN ZUZENDARITZAREN IKUSKARITZA LANA

### 1. IKUSKIZUNETARAKO LOKALAK

ERABILERA ANITZEKO LOKAL ESPEZIFIKOEN kopurua jaitsi dela ikusi da eta PILOTALEKU eta ZEZEN-PLAZEN kopurua, ordea, hazi dela. Egoera hori gertatu da espazioak sailkatzeko irizpidea aldatu delako. Izan ere, azkeneko bien kasuan beren jarduera nagusia gailendu da beraietan baimen daitezkeen beste jarduera batzuen aldean. Horrela, ERABILERA ANITZEKO LOKAL ESPEZIFIKO izena horretarako prestatutako instalazioei emango zaie.

### 2. SEGURTASUNA IKUSKIZUN PUBLIKO ETA JOLAS JARDUERETARAKO LOKALETAN

JARDUERAREN AURREKO IKUSKAPENAK 2011n eta 2012an 2 izan ziren eta 2013an, ordea, 27.

Lehenengo bi urteetan ia ez da ikuskapenik egon proiektuei eta lokalei buruzko txosten teknikoak eta irizpenak lantzeko esparru-hitzarmena enpresa batzuei (2010eko irailaren 27ko ebazpenean zerrendatuta daudenak) behin betiko esleitu zitzaielako.

2013. urtean zehar 27 ikuskapen egin dira arkitekto teknikoarekin batera, Joko eta Ikuskizun Zuzendaritzak eskatuta. 27 ikuskapen horiek adierazten dute Joko Zuzendaritzaren eskumeneko lokalen % 12 ikuskatu dela.

Era berean, lokalen alderdi jakin batzuei buruz landutako txosten gehienak Zuzendaritzaren eskariz egin dira.

### 3. BIAMENDUTAKO IKUSKIZUNAK

- SU ARTIFIZIALAK: ikuskizun piroteknikoen kopurua jaitsi dela ikusi da, baina kopurua beharbada bi arrazoiengatik mantendu da: erregelamenduaren aldaketagatik, 10 eta 50 kg artean baimena behar baita
- KIROL IKUSKIZUNAK / KULTURA IKUSKIZUNAK / ZIRKUA ETA HAURRENTZAKO IKUSKIZUNAK: lehenengo bietan jaitsiera ikusi da (nabaria kultura-jardueren kasuan) eta haurrentzako ikuskizunen kopurua, ordea, nabarmen hazi da. Baliteke hori hala izatea ikuskizun bakoitzari ematen zaion sailkapenagatik.

### 4. JARDUERAREN IKUSKAPENAK

2011. urteko antzeko kopuruak mantentzen dira, zezen-ikuskizunena izan ezik, pixkanaka jaisten joan baita.

### 5. IKUSKIZUN PUBLIKOAK


- ORDUTEGI ALDAKETARI BURUZKO TXOSTENAK: eskabideak aldaketa eskatzen duen lokalaren mugapeko Ertzaintzaren unitateetara edo udaltzaingoetara bidaliko dira.

- IKUSKIZUNETARAKO LOKALEN ORDUTEGIAREN KONTROLA: Ertzaintzako unitate edo udaltzaingoekiko koordinazioa behar da eremuko lokal guztien kontrola egiteko.
- INDARKERIAREN AURKAKO PROTOKOLOARI BURUZKO TXOSTENA: unitateetako segurtasun-koordinatzaileengan zentralizatuta.

## EGINDAKO IKUSKAPENAK

IKUSKIZUN ARLOKO JARDUERA	2012	2013
Ikuskizun eta jolas-jardueretarako lokalak	222	223
Ikuskizun eta jolas-jardueretarako lokalei buruzko txostenak	14	25
Baimendutako jarduerari buruzkoak	524	498
Lokaletako jarduerari buruzko ikuskapenak	829	800


\*Lokalaren lizentzian aurreikusitako jarduerak



## ESTABLEZIMENDUAREN JARDUERA/LIZENTZIA


Ikuskizun eta jolas-jardueren arloan, establezimenduaren lizentziaren babesean, lokalei eta instalazioei baimendutako jardueraren zaintza eta kontrola.

JARDUERAREN IKUSKAPENAK	2012	2013
AZOKA EREMUAK, ERABILERA ANITZEKOAK, MUSEOAK ETA ERAKUSKETA ARETOAK	60	58
ZINEMAK ETA ANTZOKIAK	128	107
KONTZERTU ARETOAK, DANTZALEKUAK ETA DISKOTEKAK	101	98
FUTBOL ZELAIK	167	166
KIROL BARRUTIAK / KIROLDEGIAK	286	279
PILOTALEKUAK	46	53
ZEZEN-PLAZAK	38	29
BAIMEN BEHARRIK EZ DUTEN BESTE BATZUK	03	10
GUZTIRA	829	800



ADMINISTRATIBOAK/IKUSKIZUN PUBLIKOAK

IKUSKIZUN PUBLIKOEN ZAINZA ETA KONTROLA	2012	2013
BAIMENDUTAKO BIRSALMENTARI BURUZKO TXOSTENAK	01	01
ORDUTEGI ALDAKETARI BURUZKO TXOSTENAK	07	01
IKUSKIZUNETARAKO LOKALEN ORDUTEGIAREN KONTROLA	86	71
INDARKERIAREN AURKAKO PROTOKOLOARI BURUZKO TXOSTENAK	42	00
EGIAZTAPENAK/BESTELAKO ESKAKIZUNAK	28	25
ERREKLAMAZIOAK/JARDUERAN IZANDAKO GORABEHERAK	00	00
ZEHAPEN ESPEDIENTEENGATIKO BERRESPENAK	06	01
GUZTIRA	170	99




## ZEZEN ARLOKO JARDUERA

### 2012 - 2013 ALDIKO ZEZEN IKUSKIZUNEN KONPARAZIO TAULA

	2012	2013
ZEZENKETAK	20	14
ZEZENKETA MISTOAK	3	0
BURTZI-ZEZENKETA	2	2
PIKATZAILEDUN NOBILLADAK	1	2
PIKATZAILERIK GABEKO NOBILLADAK	12	9
NOBILLADA MISTOAK	0	1
BURTZI-NOBILLADAK	0	0
ZEKORKETAK	0	0
JAIALDIAK	2	1
<b>GUZTIRA</b>	<b>40</b>	<b>29</b>

Jaisten jarraitzen du, azken urteotan gertatzen ari den joeraren arabera. 2013. urtean 29 zezen-ikuskitan nagusi egin dira, eta hori ia % 30eko jaitsiera da. Horren arrazoi nagusia da Donostiako Ilunbeko zezen-plazaren jardura eten egin dela.






## V IKUSKIZUN ARLOKO TASEN ONDORIOZKO DIRU SARRERAK

2012. urtean bezala, honetan ere gehitu dira Joko eta Ikuskizun Zuzendaritzak sortutako diru-sarrerei buruzko datuak; hain zuzen, administrazio-tasengatikoko bilketari loturikoak. Datuen azterketatik ondorioztatzen da hiru lurralde historikoetan izandako diru-bilketarik handiena zezen-ikuskitzunek eragiten dutela, batez ere zezen-ikuskitzun nagusiek eta esparru itxietan egindako ikuskizun eta jardueretarako baimenek, bilketaren ia % 90 baita.

### Tasa-kopurua

Kontzeptua	Lurralde Historikoa								Guztira 2012	Guztira 2013
	Araba		Gipuzkoa		Bizkaia		Lakua			
Urtea	2012	2013	2012	2013	2012	2013	2012	2013		
Ordutegiaren luzapena	2	2	7	7	1	6			10	15
Generikoak	3	1	2	11	6	5	3	3	14	20
Piroteknikoak			2			2			2	2
Esparru itxiak	7	11	26	29	20	24			53	64
Zezen-ikuskitzun nagusiak	1	3	2	1	6	5			9	9
Bestelako zezen-ikuskitzunak	1	3	2	1		1			3	5
Usadiozko zezen-ikuskitzunak	2	1	3	7	5	6			10	14
<b>Tasen guztizko kop.</b>	<b>16</b>	<b>21</b>	<b>44</b>	<b>56</b>	<b>38</b>	<b>49</b>	<b>3</b>	<b>3</b>	<b>101</b>	<b>129</b>






**Tasen zenbatekoa**

Kontzeptua	Lurralde Historikoa								Guztira 2012	Guztira 2013
	Araba		Gipuzkoa		Bizkaia		Lakua			
Urtea	2012	2013	2012	2013	2012	2013	2012	2013		
Ordutegien luzapena	239,44	239,44	1196,16	1196,16	68,56	820,64			1504,16	2256,24
Generikoak	51,27	51,27	34,18	700,85	375,97	427,62	136,72	102,54	598,14	1282,28
Pirroteknikoak			1093,52			273,38			1093,52	273,38
Esparru itxiak	820,32	563,97	1999,53	2922,39	2512,23	4101,6			5332,08	7587,96
Zezen-ikuskizun nagusiak	1366,85	1913,59	2460,33	820,11	4100,55	3553,81			7927,73	6287,51
Bestelako zezen-ikuskizunak	51,27	153,81	102,54	51,27		51,27			153,81	256,35
Usadiozko zezen-ikuskizunak	358,89	51,27	307,62	358,89	410,16	307,62			1076,67	717,78
<b>Zenbatekoak guztira</b>	<b>2888,04</b>	<b>2973,35</b>	<b>7193,88</b>	<b>6049,67</b>	<b>7467,47</b>	<b>9535,94</b>	<b>136,72</b>	<b>102,54</b>	<b>17686,11</b>	<b>18661,5</b>







## VI

# 2013KO AGENDA

Hona hemen Joko eta Ikuskizun Zuzendaritzak 2013. urtean zehar ikuskizun publiko eta jolas-jardueren arloan dagokion jardun-eremuan burututako jardueraren laburpena.

### 1. Kudeatzeko, izapidetzeko eta ikuskatzeko prozeduren hobekuntza.

Joko- eta ikuskizun-prozedurak kudeatze aldera, aplikazio informatiko berria (JOIKU) ezartzeko prozesuan 2013ko ekitaldian ikuskaritza-arloaren integrazioa egin da (Joko eta Ikuskizun Unitatea).

Beste alde batetik, joko-, ikuskizun- eta zehapen-sekzioak hobetzeko aurrerapenak egin dira. Halaber, zehapen-arloan zehapenak zatikatzeko prozedura sartu da aplikazioan.

### 2. Kontrol eta ikuskapenerako sistemen eta prozeduren garapena.

2013ko ekitaldian zehar 700 pertsonatik gorako edukiera duten lokal publikoak ikuskatu dira zuzendaritza honi atxikitako Ertzaintzako Joko eta Ikuskapen Unitatearen bitartez.

Ekitaldi honetan Joko eta Ikuskizun Unitatearen Ikuskapen Plan berriaren zirriborroa prestatu da eta jokoaren eta ikuskizunen ikuskapen-planak bereizita geratu dira.

Bestetik, protokolo berria aplikatu da arrisku handiko ikuskizunak, edukiera handia dutenak edo jarduera horretarako lizentzia ez duten lokaletan ohikotasunez egiten diren ikuskizunak ikuskatu eta kontrolatzeko prozedurei buruz. Arreta berezia jarri da ikuskizun hauek gehien egiten diren garaietan (hala nola, Halloween jaia eta Gabonak). Bestetik, San Mames Barria estadioaren plangintzan eta obran zehar lanean aritu gara kirol-ikuskizunak hartzeko beharrezkoak diren baldintzak bete daitezen.

Ildo beretik, kiroleko indarkeriaren aurkako borrokari dagokionez, Gazteria eta Kirol Zuzendaritzarekin elkarlanean, Eusko Jaurlaritzako Segurtasun Sailaren eta klubuen, kirol-sozietate anonimoen eta kirol-federazioen arteko lankidetzarako hitzarmen-zirriborro berria prestatu da; hain zuzen, kiroleko indarkeriaren, arrazakeriaren, xenofobiaren eta intolerantziaren kontrako borrokaren eremuan. Aldi berean, Gazteria eta Kirol Zuzendaritzarekin elkarlanean aritu gara beste kirol-eremu batzuetako indarkeriazko egoeren aurkako protokoloak prestatzeko.

### 3. Zabalkunde-kanpainak eta argitalpenak egitea.

Ikuskizun eta jolas-jardueretarako lokalen edukierari buruzko zabalkunde-kanpainak egin dira Gabonetako jaien inguruan antolatutako ekitaldiei begira.

Beste alde batetik, ekitaldi honetan Euskadiko zezen-ikuskizunei buruzko araudiaren testu kontsolidatua argitaratu da, baita Euskadiko ikuskizun piroteknikoen gaineko araudiaren laburpen bat ere, Euskal Autonomia Erkidegoko piroteknia-artifiziodun ikuskizunei buruzko dekretu onartu berriaren testua barne sartuta. Hori guztia egin da beste administrazio publiko batzuek eta administratuek ikuskizun-mota horri aplikatu dakiokeen segurtasun-araudia hobeto ezagutzeko.

#### **4. Beste administrazio batzuekiko harremanak eta informazio trukea, baita Joko eta Ikuskizun Zuzendaritzaren negozio-arloekin lotuta dauden elkarteekin ere.**

Bestetik, ordezkaturako erakundeekin (EUDEL, foru-aldundiak,...) beharrezko bilerak eta harremanak izaten jarraitu da jokoaren, ikuskizunen eta zezenketa-gaien euskal kontseiluen esparruan.

Beste alde batetik, 2013an zehar Joko eta Ikuskizun Zuzendaritzak euskal udaletara jo du –zuzenean edo EUDEL-en bitartez– ikuskizunak eta jolas-jarduerak lokal publikoei aplikatu dakiekeen araudi teknikoan jasotako segurtasun-parametroen barruan egiten direla bermatzeko beharra azpimarratzeko helburuarekin.

#### **5.- Araudia egokitzea eta garatzea.**

2013ko ekitaldian zehar araudi batzuk –EHAAn argitaratuak– onartu dira. Hona hemen:

- 400/2013 Dekretua, uztailaren 30ekoa, Euskal Autonomia Erkidegoko piroteknia-artifiziodun ikuskizunei buruzkoa.
- 2013ko maiatzaren 15eko Agindua, Segurtasuneko sailburuarena, ostalaritzako eta ikuskizun publikoetarako lokaletan jarri beharreko ordutegiaren eta identifikazio-bereizgarrien publizitateari buruzko 2012ko ekainaren 25eko Agindua aldatzen duena.
- 2013ko otsailaren 1eko Agindua, Segurtasuneko sailburuarena, ostalaritzako eta ikuskizun publikoetarako lokalen kanpoaldean 2012ko ekainaren 25eko Agindua aipatzen dituen identifikazio-bereizgarriak jartzeko epea luzatzen duena

Beste alde batetik, jendaurreko informazioaren izapideari hasiera eman zaio araudi-proiektu hauei loturik:

- Ikuskizun eta jolas-jarduerari buruzko Lege-aurreproiektua.
- Euskal Autonomia Erkidegoan ikuskizun publikoen eta jolas-jardueren ordutegiak eta jardura horiei buruzko beste alderdi batzuk ezartzen dituen dekretua hirugarren aldiz aldatzeko dekretu-proiektua.

- Ikuskizun publiko eta jolas-jardueretako erantzukizun zibileko aseguruaren dekretu-proiektua Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Sailarekin elkarlanean.

Bukatzeko, piroteknia-artifiziodun ikuskizunak arautzen dituen araudia garatze aldera, 2013ko ekitaldian zehar hiru ikastaro egin dira Arkauteko Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiarekin elkarlanean zezensuzkoa eramateko beharrezko prestakuntza eskuratzeko. Ikastaro horiek jaialdi-mota hori antolatzen duten euskal udaletako langileei zuzenduta egon dira, eta 100 pertsona baino gehiagok parte hartu dute.

## **6.- Parte hartutako organoen jarduera**

### **1. Jendaurreko Ikuskizunen eta Jolas Jardueren Euskal Kontseilua:**

2013an zehar Jendaurreko Ikuskizunen eta Jolas Jardueren Euskal Kontseiluak bilera hauek egin ditu:

- Ohiko bilera maiatzaren 8an, non gai hauek jorratu ziren: Kontseiluko kide berrien aurkezpena, aurreko bileraren akta onartzea, Ikuskizun-arloaren 2012ko jardueren memoria eta Segurtasun Sailaren ikuskizun-arloko ildo estrategikoak.
- Ezohiko bilera uztailaren 2an. Bertan gai hauek jorratu ziren: aurreko bileraren akta onartzea eta araudi honi buruzko nahitaezko txostena ematea:
  - Piroteknia-artifiziodun ikuskizunak arautzeko dekretu-proiektua.
  - Ikuskizun publikoak eta jolas-jarduerak egiteko eskatzekoak diren erantzukizun zibileko aseguruak arautzeko dekretu-proiektua.
  - Euskal Autonomia Erkidegoan ikuskizun publikoen eta jolas-jardueren ordutegiak eta jarduera horiei buruzko beste alderdi batzuk ezartzen dituen dekretua hirugarren aldiz aldatzeko dekretu-proiektua.

### **2. Zezen Gaietarako Euskal Batzorde Aholku-emailea.**

Zezen Gaietarako Euskal Batzorde Aholku-emaileak 2013an ohiko bilera bat egin zuen, zehazki apirilaren 18an. Bertan, zegokion akta onartzeaz gain, gai hauek jorratu zituzten: Batzordeko kide berrien aurkezpena, 2012ko zezenketa-denboraldiaren azterketa eta 2013ko urteko denboraldiaren aurrerapenaren aurkezpena egin ziren eta; azkenik, Madrilen tauromakia sustatu eta babesteko lan-batzordean aztertutako gaiak eztabaidatu ziren



# VII ARAU-EGITURA

## IKUSKIZUNEN LEGEA (1995)

### ZEZEN- IKUSKIZUNAK

Euskadiko zezen-ikuskitzunei buruzko araudiaren aldaketa (2010)

Euskadiko zezen-ikuskitzunei buruzko araudia (2008)

Lagin biologikoak hartzeko prozedura (1999)

Lagin-analisisa egiteko homologatutako erakundeak (1999)

### PIROTEKNIA- ARTIFIZIOAK

Piroteknia-artifiziodun ikuskizunen erregulazioa (2013)

Piroteknia-artifiziodun ikuskizunen erregulazioa (2013)

### LOKALETAKO SEGURTASUNA

Lokal publikoei buruzko txostenak egiteko kontratuaren esleipena (2013)

Lokaletan segurtasun-ikuskitzunen teknikoak egiteko erakunde esleipendunak (2008)

Lokalen eta ikuskizunen aseguramendua (1998)

Ikuskapenen plan orokorra (1998)

### ORDUTEGIAK

2013ko maiatzaren 15eko Agindua, Segurtasuneko sailburuarena, ordutegien eta identifikazio-bereizgarrien publizitateari buruzkoa

2013ko otsailaren 1eko Agindua, Segurtasuneko sailburuarena, identifikazio-bereizgarriak jartzeko epea luzatzen duena.

36/2012 Dekretua, martxoaren 13koa, ordutegien dekretua bigarren aldiz aldatzen duena (2012)

Ordutegien dekretuaren aldaketa (1998)

Ordutegien dekretua (1997)

**7/2012 Legea, apirilaren 23koa.** Horren bidez lege batzuk aldatu dira barne-merkatuko zerbitzuei buruzko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren abenduaren 12ko 2006/123/EE Zuzentaraura egokitzeko.